


Euskal Herriko Ahotsak  
ahotsak.com

*Ispaster*



Aurkibidea

# Udalerria: Ispaster

## Sarrera



Bizkaiko ipar-ekialdean dagoen udalerri euskalduna da, Lea-Artibaiko eskualdean eta kostaldean kokatutakoa. Elexalde da Ispasterreko udalerriaren gunea, gainerako biztanleak baserrietako auzoetan, habitat oso sakabanatuan kokatzen dira. Auzo honek bi zonatan kokatzen dira, Goiherri eta Beherri. Herri hauek ditu mugakide: Nabarniz, Gizaburuaga eta Amoroto hegoaldean; Lekeitio eta Mendexa ekialdean; Ea mendebaldean; eta, Iparraldean, Kantauri Itsasoa du. Mendebaldeko euskararen aldaera da herriko euskalkia.

- **Biztanleak:** 662
- **Euskaldunak:** %96,44

## Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **7**
- Zintak: **15**
- Pasarteak: **24**
- Transkribatutakoak: **11**
- Audioak: **0**
- Bideoak: **24**

## Proiektuak

- Diasporako Ahotsak
- Eako ahotsak
- Euskal Herriko Ahotsak

## Hizlariak

### **Cirila Armaolea Leniz** (1933)



Ezkontza izenez "Sisi (C.C.)" Markuerkiaga. Ama Ispasterkoa zuen eta aita Aulestikoa. Belaustegi baserrian bizi ziren. Bost senidetan laugarrena zen Cirila. Barainka auzoko eskolan ibili zen, 14 urtera arte. 15ekin neskame joan zen Lekeitiora, Zabala familiarekin: dendan eta umezain egoten zen. Josten ere ikasi zuen pixka bat. 17 urterekin senarra izango zena ezagutu zuen: Patxi Markuerkiaga lekeitiarra. 1955ean ezkondu ziren eta alabak 13 hilabete zituenen senarra Ameriketara joan zen artzain; handik bost urtera bueltatu zen, alabaren jaunartzerako. Bigarren umearen esperoan zeudela berriro joan zen; umea hilabete gutxirekin hil zen. 1965ean Cirila alabarekin joan zen Ameriketara eta bertan bizi izan da geroztik, Lovelocken (Nevada). Beste hiru alaba izan zituzten han eta euskaraz hitz egiten zieten. Arrantxo batean bizi izan ziren. Lovelockeko eskolako sukaldean egin zuen lana erretiroa hartu zuen arte. Senarra eta biak Winnemuccako euskal klubeko bazkideak izan ziren.

### **Purita Arritola Gallettebeitia** (1930-2013)



Kortazar auzoko Beaskoa "Bisko" baserriko alaba. Gurasoak ere auzo berekoak zituen. Herri-eskolako kontuak, umetako olgetak, plazara jeneroa saltzen joaten zenekoa, gerran bizitakoak, Gabonetako zein Aste Santuko ospakizun eta ohiturak, herriko nesken ezpata-dantzari taldearen historia, lekeitiarrekin zuten hartu-emaña... kontatu zizkigun [Hermi Erkiaga](#) lagunarekin batera. Argazkian ezkerrekoa da Purita.

### **Hermi Erkiaga Orbe** (1921-2021)



Larrinaga auzoko Etxebarri etxean jaio zen 1921. urtean. Gurasoak ere herrikoak zituen: ama Agarre baserrikoa eta aita Ameriketara ibilitakoa eta Elizaldeko Erkiaga kalean jaiotakoa. Lau neba-arrebatatik bigarrena izan zen. Herri-eskolako kontuak, gerran bizitakoak, Gabonetako zein Aste Santuko ospakizun eta ohiturak, herriko nesken ezpata-dantzari taldearen historia, lekeitiarrekin zuten hartu-emaña... izan ditu hizpide [Purita Arritola](#) herrikidearekin batera. Argazkiko eskumakoa da Hermi.

### **Juan Larrinaga Atxabal Txarri (1918-2015)**



1918. urtean jaio zen Ispasterko Elizaldeko Txaletean. Gurasoak ere herrikoak bertakoak zituen, Goierrikoak. Bederatzi neba-arrebatatik nagusiena izan zen. Sei urtetatik 14 urtera arte, Primo de Riveraren diktadura garaian, joan zen herriko eskolara. Bitartean, etxeko nagusiena zenez eta lagundu beharra zegoenez, hamar urte zituenereko aititagaz egur-ikatzza egiten ikasi zuen. 14 urte zituela, osaba bategaz hasi zen errementari lanetan eta bost herritako perratzailea izan zen, gerrateko ebakuaziora arte. Gerra Zibilean, Mungia batailoiko Santxustegi konpainiako gudariekin joan zen frontera. Hilabete eta erdira jausi eta nazionalen esku geratu zen: Gasteizen, Urduñako kartzelan, Palencian, Guadalajaran... egon zen kartzelan zein langile-batailoietan. 30 urtegaz ezkondu zen Ean eta bertan osatu zuen familia. Hainbat lanbide izan ditu bere bizitza oparoan, nahiz eta batik bat basolanetan aritu izan: amumagaz erlezaintza ikasi zuen, Eako Beletxen matarife ibili zen... 94 urte bete berri izan arren, bizi-bizi eta gogotsu kontatu zizkigun bere bizipenak.

### **Julian Larrinaga Atxabal (1927-2024)**



Kortazar auzoko Goisko baserrian jaio, hazi eta bizitakoa. Azken urteetan baino ez da bizi izan baserritik kanpo. Ume-umetatik hasi zen baserriko beharretan. Gerra aurretik Ekin egunkaria saltzen zuen Ispasterko plazan. Gerrako kontuak eta Ispasterren bizitakoak oso ondo gogoratzen ditu. Ordiziako kale-baserri batean bi urtez morroi egon ostean, Bedaronako (Ea) etxe batean ere egon zen. Australian lanpostu ona eskaini zioten azukre-kanaberak lantzeko eta bertan egon zen zortzi urtez, azken hiru urteak Sidneyn gobernurako lan batzuk egiten.

### **Eugenio Malaxetxebarria Arnaiz (1926-2019)**



Goierri auzoko Arrizubieta baserriko semea. Gurasoak ere Ispasterkoak zituen. Baserrian bertan bizi izan zen 31 urtegaz Ameriketara artzain joan arte. Bi egonaldi egin zituen erbestean, zazpi urte guztira. Herrian zegoela arotz lanetan aritu zen; hasieran batez ere gurdiak egiten zituzten. Artzain eta arotz kontuak kontatzeaz gain, Ispasterko antzinako hainbat kontu kontatu dizkigu: eskola, erjilio kontuak, erromeriak, gizon-probak...

## Iñaki Zabala Madarieta *Nick* (1943)



Guraso biak Ispasterrekoak zituen. Gallette baserrian bizi ziren. Bost senidetan erdikoa, 10 urterekin seminariora bidali zuten fraidegai (lau urterako). 14 urterekin mekaniko ikasi zuen Lekeition (kamioiak eta itsasontziak). Elgoibarren egon zen gero lanean, auto-mekaniko. Soldadutza egin ostean Ameriketara joan zen (hiru anaia bera baino lehenago joan ziren), 1967an, Hagermanera (Idaho) ardi-lanera: urte eta erdi "campero" egin zuen eta beste urte eta erdi "mayordomo". 1970ean Carmen Zabalarekin ezkondu zen (bi seme-alaba izan zituzten eta biek dakite euskaraz). Emazteak eta berak ugazaba berarentzat lanean jarraitu zuten: emaztea sukaldari eta Iñaki "mayordomo", arrantxoan. Bost urtera, baina, Idaho Power elektrizitate enpresan hasi zen lanean eta bertan ibili zen erretiroa hartu arte: turbinak soldatzen eta mekaniko lehenengo eta enkargatu moduan gerora. Mahastiak ipini zituzten eta Carmela ardandegiari saltzen zizkieten. Mexikon etxea erosi zuten eta bost hilabete bertan igarotzen zituen, emaztearekin.

## Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

### 1. Familia eta harremanak

#### 1.1. 'Txarri' ezizenaren jatorria

- **Hizlaria(k)**: Larrinaga Atxabal, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiola, Nerea - Gonzalez, Andere
- **Erref**: ISP-010/003
- **Iraupena**: 0:01:05. **Hasi**: 00:00:32. **Bukatu**: 00:01:37
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:  
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Gaitzizenak
- **Laburpena**: 'Txarri' ezizenaren istorioa kontatzen du. Zergatik deitzen diote Juan 'Txarri'.

#### Transkripzioa

- Bai, batzuk Juan "Txarri" deitzen deuste. Neskatiilla batek, neskatiilla batek, Buenos Airesen dauenak, neskatiilla batek, basun biherrin gebixela pasun, ixekugana juten zan ta pasun bajatzen zan handixeik. Ta kuadrilla, kuadrillan genbizelez, beti egoten da baten bat apurtxu bet okertxuaue edo zertxuaue ta pentsaute euki eben handixeik pasetan danin adarrak botatie. Esan neutsen: "Ez eioxzue bota, horrek saltau be igul eingo dau gero adarren ganetik ziher-ta". Ta klaro, ein eiben. Aber, neu esaten "ez eioxzue ein" ta gero harexek ipini osten /ipinisten/. "Ni ez naz izen" esan notson "nik ez dot nahi izen eitterik". "Bai, zeu izen zara". Maritxu.

## 2. Ohiturak eta bizimodua

### 2.1. Lekeitioko fraideetara joan ordez, osaba errementariarekin lanean

- **Hizlaria(k):** Larrinaga Atxabal, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea - Gonzalez, Andere
- **Erref:** ISP-010/009
- **Iraupena:** 0:01:31. **Hasi:** 00:07:30. **Bukatu:** 00:09:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
  - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
  - Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Seminarioa
  - Lanbideak » Antzinako lanbideak » Errementariak, ferratzaileak
- **Laburpena:** Eskolatik irten zenean, maisuak Lekeitioko fraideetara ikasten joateko gonbitea luzatu zion, baina berak osaba errementariarekin lanean geratzea erabaki zuen. 1937ko ebakuaziora arte egon zen lanean osabarekin.

#### Transkripzioa

- Hamalau urtegaz eskolatik urten zendun?
- Hamalau urtegaz eskolatik urten neban. Ta maixuk nahi ixen eban, Lekitxon fraillik euezen ta klasik emoten ebezen ta nire lagunak, nire kintxuk, bi ala ez daitz hiru, hiru pentsetan dot jun zirile, ta ni be jutie. Ta nire amari esan eutson /esantson/, ia ez doten nahi juterik horra ta ezetz ez dotela nahi. Neure osabiek eukon, errementarixe, ta ganaduk erraduretako hori. Ta pentsau neban haraxe jun. Etxien ago bat kendu ta diru apurtxu bet irebazi eingo nebala ta hara jutie. Ta gero sarri pentsau dot: "Jun banitzen ni lehen Lekitxora igul ixengo nitzen" ez neuk esatiarren baiña. Bakixu nik kuentak ataraten ta problemak eta ataraten ta ezin atara ta: "A ver, Larrinaga al tablero. Exacto".
- Semea: Eta horreaz, tiogaz, zenbat denpora ein zendun han errementari?
- Tiogaz, hamalau urtegaz jun ta hamazortziaz, hemeretzi kunpliduteko. Gerra ebakuaziñoie izen zanin "treinta y sietin", etxetik urten.

## 3. Politika

### 3.1. Kartzelara errakuntza bategatik

- **Hizlaria(k):** Larrinaga Atxabal, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea - Gonzalez, Andere
- **Erref:** ISP-010/011
- **Iraupena:** 0:00:27. **Hasi:** 00:09:20. **Bukatu:** 00:09:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
  - Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
  - Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- **Laburpena:** Gerra hasi zenean, basoan lan egiten zuen beste lagun batzuekin batera. Egun batean, basoak su hartu zuen eta Guardia Zibilak haiek izan zirela pentsatu zutenez kartzelara bidali zituzten.

#### Transkripzioa

- Semea: Hori, gerri hasi zanin kartzelan egon ziñen.
- A, bai, klaro sue hartu euskun hor baserrixen, biherrin genbizela. Hartu

ez, beste batzuk. Hemen Guarda Zobillak eta euzezan eta, baiña eurrerau etxien biher eben /bieben/ piñu [...] bila-edo juten zirin basora ta basuk siku-siku euezan ta zigarron batek erreta su hartun ta gero geu giñela ta kartzelara erun gaittuen.

## 4. Baserria

### 4.1. Bera zen morroia, baina ganadua maneiatzeko ugazaba

- **Hizlaria(k):** Larrinaga Atxabal, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiolea, Nerea - Gonzalez, Andere
- **Erref:** ISP-010/013
- **Iraupena:** 0:03:09. **Hasi:** 00:10:00. **Bukatu:** 00:13:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**  
Baserria » Baserriko bizimodua
- **Laburpena:** Lan ezberdin ugari eduki ditu bere bizitzan. Gaztetan morroi bezala hasi bazen ere, ugazaba bezala tratatzen zutela dio eta denboraldi horretako istorio bat kontatzen digu, 14 urterekin ganadua zaintzen egon zenekoa.

### Transkripzioa

-Danetara eitten neban: barberu, errementari, ganaderu, danetara eitten neban, hori. Ni krixedu ixen nitzen esaterako, baiña neu nitzen uzaba han ha ganadue-ta manejetako. Pentsau ba hamalau urte agostun hogeta batin kunplidute neukozen. Ta setiembrin, ez dait ba, zazpi-zortzi edo, zortzixen ixeten da Andra Mari, basun azpigarrixek ekarri biher izeten /bizete/ zan ganaduentzako ta hori, ta bihergiñek ibiltxen genduzen enjeneralin artoxorran ta basuen ta danien ta hareri burdixegaz jun, azpigarrixek ekarri ta merixendi erun ta eitxeko. Ta merixendi, tia difuntik merixendi eta preparau ta hori ta ganaduk be lotu burdixen ta etorri zirin bi ganadukin, berbetan: “Nik basora jun biher juat /bixuat/”. “Ez” esan eutson perratokixen. “Bai, ez naz allegetan hara”, bastante bajutxu nitzen-ta, “ez naz allegetan hara ganaduk altxetako lekure”. “Geuk altxauko doguz, eingo dozuz zuk hori horrek. Erradurauko dozuz horrek”. “Bai, erradurau igul eingo dotez” esan netsen. Ta ein nebazen erradurau, kobretan banekixen. Kobrau ta han oniñoko zoker propinie be emoten eusten. Gauza handixe ez zan ordun, txakur haundi bi, hiru edo dana dalaku ixengo zan, baiña emon eusten hori be. Ta bueno, amaitxu ta esan netsen: “Bueno, oin nik jun ein biher dot /biot/” ta honaxe Bedaruko kruzera artin etorri biher neban /bineban/ basora. Ta hartun ganaduk, laukuen, ta honako baten allagau nitzen basora ta tiori deittu notsen ta “Berandu hator!” esan eusten ta. “Bai, aiba” esan notson “hau diruau kobrau dotena”. “Zer dok hau ba?” ta “[...] Motxa ta [...] Noble perrau dotez”. “Hori be ein dok?” esan eusten. Ta hareri mutillari be, “Benga mutillak, gaurko biherrak amaittute daz, beinga etorri hon. Merixendi jan, gurdixe kargau ta etxera jun biher dogu /biou/. Ikusten dok honek zelako eskukada diru ekarri dosten /ekarristen/?”. “Aiba, zeuretzat honek”. Ni pentsetan dot zerun egon nitzela ordun, ha emon eustenin, jolin ordun eskukada dirue. Esan eutsen hareri bihergiñeri: “Oin etxaukat Parisera juteko be nik bilddurrik. Honek edozer biher eitten dostek-eta”.

## 5. Lanbideak

### 5.1. Errementeria etxeko teilapean zegoen

- **Hizlaria(k):** Larrinaga Atxabal, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiolea, Nerea - Gonzalez, Andere
- **Erref:** ISP-010/015
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:14:09. **Bukatu:** 00:15:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**  
Lanbideak » Antzinako lanbideak » Errementariak, ferratzaileak
- **Laburpena:** Etxeko teilapean lan egiten zuen osabarekin eta bertan zuten errementari-tailerra. Bost herri ezberdinetatik ibiltzen ziren eta asteko egun guztietan lan egiten zuten.

#### Transkripzioa

-Errementari esan dozu, erradurak eitten zenduezela.

-Bai.

-Baiña han perratokixe tailler moduen euki zenduen etxien edo?

-Bai. Etxin tejabani aurrin hori ta bertan. Ordun guk bost herri eitten genduzen. Lekitto, Ipistar, Amoto, Mendexa ta Ipistar. Bost herri, erun genduzen. Astiek sei egun dekoz biherrerako ta guk zortzi egun sartzen genduzen. Bai. Lekitxon martizena, eguena ta zapatue, eguaztena Mendexan, barixakue Amoton ta astelehena, eguaztena ta barixaku Ipistarren. Zortzi egun biherrien.

-Semea: Bertako hauspu be oin ez dago Bilbon hor museo etnologafikon?

-Bai, eongo da. Nik hareri zenbat bider erain dotsoten /eraintsoten/.

### 5.2. Ez zituzten ferrak egiten, forma ematen zieten

- **Hizlaria(k):** Larrinaga Atxabal, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiolea, Nerea - Gonzalez, Andere
- **Erref:** ISP-010/017
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:15:37. **Bukatu:** 00:16:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**  
Lanbideak » Antzinako lanbideak » Errementariak, ferratzaileak
- **Laburpena:** Errementerian bertan ez zituzten bertan ferrak egiten. Haiei Mutrikuko fabrika batetik ekartzen zizkieten piezak eta bertan forma ematen zieten. Ferra mota ezberdinak azaltzen dizkigu.

#### Transkripzioa

-Erradurak be...

-Ez, erradurak eindde ekarten euskuezen.

-A bai?

-Bai, fabrikatik, normal Mutrikutik ekarten genduzen guk hori. Mutrikun euen fabrika bat eta handixik hori, erradurak. Bestelako erramintzak eitxen zirin bertan.

-Semea: Baiña gero formie emon biher zuek.

-Bai, bai, formie emon biher.

-Diferentie da ganauena edo kaballuena edo?

-Totalmente diferente.

-Semea: Eta gero behixek haundixek, txikixek....



-Bai.  
 -Ze diferentzi eoten zan erraduran artien? Esplikau eizu /esplikaizu/ hori apurtxu bat.  
 -Zer?  
 -Erradurak! Zelako diferentzixe eukitten ebien batetik bestera.  
 -Batetik bestera, barrixe, erraduri be barrixe ixen edo ibilitxakue ixen, reformatako zozer ein biher badxakon asko be, perra barridxe da bigunauehori . Ganadun ibilitxe dagon erradurie, igul iten da nahi dozu / nahixu/ ein on zulu gehitxua edo sakonaue edo nahixu ipini, exin eindde, ta igul emoten dotsezu mailluaz ta apurte eitten jatzu.  
 - Semea: Baiña zuek perrie esaten dozue, ezta?  
 -Perrie, bai. Perrie. Erraduriari guk perrie beti esan deu.

### 5.3. Haiena zen kostaldeko errementeria bakarra

- **Hizlaria(k):** Larrinaga Atxabal, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiolea, Nerea - Gonzalez, Andere
- **Erref:** ISP-010/018
- **Iraupena:** 0:00:30. **Hasi:** 00:16:57. **Bukatu:** 00:17:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**  
 Lanbideak » Antzinako lanbideak » Errementariak, ferratzaileak
- **Laburpena:** Inguruetan beste errementeria batzuk egon ziren: Kortezubin, Gernikan, Munitibarren... Baina haiena kostaldeko bakarra zen.

#### Transkripzioa

-Eta ez zan egon ingurutan beste perratokirik edo?  
 -Bai. Kortezubin ta Gernikan ta Munitibarren ta danetan, baiña hau zona kostie, aurretik euki ben hartunde beste batzuk ta gero harek hil zienien, nire osabien ixenin hartu zirin horrek danok.

### 5.4. Egur-ikatz artean indabak estraperloan

- **Hizlaria(k):** Larrinaga Atxabal, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiolea, Nerea - Gonzalez, Andere
- **Erref:** ISP-010/022
- **Iraupena:** 0:02:26. **Hasi:** 00:21:10. **Bukatu:** 00:23:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**  
 Lanbideak » Antzinako lanbideak » Ikazkinak eta txondorak  
 Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- **Laburpena:** Bilbora eraman behar zuten egur-ikatzaren artean, indabak eramaten zituzten estraperloan. Ikatza "Fundiciones Hormazabal" izenekora eramaten zuten eta bertakoak ere nahi izaten zituen indabak langileei bazkaria emateko.

#### Transkripzioa

- Zortzi tonelada, erunde gaz Bilbora -hori Justo Silloniz eta ni- eta beste hiru tonelada inddiar.  
 - Baia inddarra...?

- Inddarra estraperlue zan. Inddarra estraperlue zan. Baserridxetan erosi ta erun. Eta, klaro, iketza erun gendun "Fundiciones Ormazabal". Han biherrin euen, ofizinan euen bat, geure kofradidxako neskaitilla bateaz euen ezkontute. Eta [argi]... horrek ugezaba zaharrak argidxe ixeten diz ta han iketza [garbittutekun] inddar zakua. Eta, klaro, obreruari emoten eutsien / emotentzien/ harek bazkaridxe igul. Ta "Bai, guk honek saldute daukouz, honek ezin geinkez... guk einde daukou konpromixu honekin", "Ba, nik zaku bi, 100 kilo, derrigor itxi biher deustezuez /bistezuez/". "Kauen dios - pentsau [naben]- Dios... Hurrengun iketza ekarteko be..." zeozer, noberak be miñ hartu biher dau /bidau/ ta itxi otseguzen /itxitsouzen/. Ta esan uskun /esauskun/: "Jun horra, dutxara, on, garbittu, eta horrek erungo zaittue hamaiketake eitten". Nunbaitten emon euskun hamaiketake eta "Bueno, geroarte" esan uskun. Gero hutsittu genduzen harek iketzak eta trastiek. Danak ein... Horretarako dutxau orduko ein genduzen danak hutsittu. Ta gero kristolako bazkaridxe emon euskun, hamaiketaku eta kristolako bazkaridxe. Hiru egun ein genduzen Bilbon.

- Jon (semea): Juergan?

- Bai, juergan-edo... pasau genduze, hiru egun pasau genduzen Bilbon. Uribitarten hartun gendun pixu baten habitaziñoie lo eitteko, ta hiru egun. Harek be pasau zirin.

## 6. Ekonomia eta industria

### 6.1. Errementarien lan egiteko modua

- **Hizlaria(k)**: Larrinaga Atxabal, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiola, Nerea - Gonzalez, Andere
- **Erref**: ISP-010/020
- **Iraupena**: 0:00:55. **Hasi**: 00:18:02. **Bukatu**: 00:18:57
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:  
Ekonomia eta industria » Lan-prozesuak  
Lanbideak » Antzinako lanbideak » Errementariak, ferratzaileak
- **Laburpena**: Tresna ezberdinak zituzten lanerako: hauspoarekin burdina berotzen zuten eta mailuarekin moldeatu egiten zuten. Burdina gori-gori zegoen bitartean, mailuarekin forma ematen zioten. Sua pizteko egur-ikatza erabiltzen zuten eta hau mantentzeko egur-minerala.

#### Transkripzioa

- Ta, ze material erabiltzen zenduen, ze tresna erabiltzen ziñuezen? Esan dozu hauspue, ez?

- Hauspue berotuteko eta martillue...

- Jon (semea): Emoteko.

- Moldiei emoteko...

- Jon (semea): Ta gero bertan?

- Burdiñie suten berotu, gorri-gorri-gorri, kaldiaute lantxerik, ure botaten balego lantxerik, [zera]. Eta burdiñie beruen erreza da moldietan, bestela [ha] eitten jatzu, igul lar gogorre atropetan badozu ezkiña baten, krak, zertu.

- Jon (semea): Eta gero iketza? Egur-iketza edo...?

- Ez, ez, minerala. Bizteko egur-iketza, sue bizteko, egur iketza ipintten gendun apur bat, baiña gero minerala iketza generalin.

## 6.2. Aititerekkin ikasi zuen egur-ikatzatza egiten

- **Hizlaria(k):** Larrinaga Atxabal, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea - Gonzalez, Andere
- **Erref:** ISP-010/021
- **Iraupena:** 0:02:13. **Hasi:** 00:18:57. **Bukatu:** 00:21:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**  
Ekonomia eta industria » Lan-prozesuak  
Lanbideak » Antzinako lanbideak » Ikazkinak eta txondorak
- **Laburpena:** Hamar urte zituela, bere aititari laguntzen zion egur-ikatzatza egiten eta ofizioa ikasi zuen. Urte askotan ibili izan da ikazkin bezala Ispasterko Otoio mendian, beste kide batekin batera egur-ikatzatza egiten.

### Transkripzioa

- Jon (semea): Eta honegaz lotuta, beste ofizidxo bat be einddakue zara, egur-iketzatza be bai pillue.

- Bai, bai, barberu be egin dot.

- Jon (semea): Egur-iketzatza. Eta nora? Eta saltzeko? Eta zer?

- Saldu Bilbora, Bilboko aiuntamientura be bai, eta Gernikako Astrara eta, leku askotara.

- Eta hori noiz egin dozu, hamalau urtegaz be bai?

- Ez, hamalau urteaz ez, baiña... Hamalau urteaz, hamalau urte baiña ariña, hamar urteaz be bai, aittittaz egonda na txabolan.

- Jon (semea): Aittittetaz iketzatza eitten...

- Aittittetaz eitten eban iketzatza. Ispasterren /Ipistarren/, han Ogellan, baserrittik erunde. Ta, klaro, apurtxu bet [...], hareri... ikeztoidxek igul zuluk eukitten ebazen, zuluk betetako, farolaz argi eitten ibili biher, ta gero tragotxue han, gailletatxue ta tragotxue txabolan barrun aittittatza.

- Esplikau...

- Baiña...

- Jon (semea): Baiña iketzatza urte askotan?

- Bai, ene! iketzatza urte askotan, iketzatza urte askotan. Erunde... Ipistarren, Otoidxon, Otoidxon, gaztaiñadi sakontxu bat dago, ta hantxe egin genduzen, beste, neu baiña urtebete, urtebete ta erdi gaztiao, Justo Silloniz, nabegaten-eta ibili zan, eta dirue atarateko nunun biher zan / bizen/, zeozar ein ein biher zan /einbizen/ hori, eta esan neutson: "Hantxe, hantxe [jazez] egur ona, hantxe. Apurtxu bat kostauko jaku, baiña eingo jauu". Baiña, pentsauzu, iketzatza lehelengo ein, etara ikeztotitik, ta hartun eta astue sartzeko lekura artin lepu erun biher ixeten gendun... hori. Gero astuk burdire eta gero burdittik kamiora.

## 7. Aisia

### 7.1. Ibarrangeluko jaian ostean ikaztokira

- **Hizlaria(k):** Larrinaga Atxabal, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea - Gonzalez, Andere
- **Erref:** ISP-010/025
- **Iraupena:** 0:02:06. **Hasi:** 00:27:13. **Bukatu:** 00:29:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

- **Gaia(k):**

Aisia » Kirola » Herri-kirolak

Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

Lanbideak » Antzinako lanbideak » Ikazkinak eta txondorrak

- **Laburpena:** Behin, Ibarrangeluko jaietan karreteru egin behar izan zuen. Bertan afaria jan, erromerian dantzan egin eta etxera bueltatu zenean ikaztokira joan behar izan zuen, su hartzen zebilela iruditu zitzaiolako.

### Transkripzioa

- Kasuk be daukotez... San Andres egune, Ibarrangeluko jaidxek, San Andres egune. Ta Ibarrangelure jun jaidxetan, eta lagunek han be, eta probak. Eta batek -horrexek, Mari Jesusen... Jesus `Merru´, proban be [eitten eban]-: "Karreteru ein biher dok /biok/", "Kauen san diez! Zelan eingo joat nik karreteru?", "Bai, bai, karreteru ein biher dok. Kendu hori alkondariori, neuk ekarriko dotsut beste bat ta zertu". Ein karreteru, aparidxe jan, erromeridxan jantzan ibili, ta gero euren arreba... bat euren arreba... beren arrebie ixen zan, proban juteko esan eustanen arrebie eta bestie lagune. Ta, bide batez, gorutz, etxerutz lagundu hareri. Ta handik urten ta lspasterren /lpistarren/ Nabarniz mendidxe [zan...], Gabika korredorin basarritik, han mendi-mendidxen hori, ta ikeztoidxek han. Etorri etxera ta bisti... pentsau. Ze ein neban? Sue dauela pentsau. Iketza atarata zaku batzuk eta, sue da! Mekauen sandios! Ezer be ez, ez anaixiari esan ez ezer be ez. Sartu prakak, ta laukuen! Nik ez dot pentsetan erbixek be atrapauko nendunik ordun atzetik. Harik eta goiko bertara bidera artien. Aillegau nitzenien, "Ene, ez jak /etxak/ surik!". Kauen diez, arnasie ezin hartunde, artien, hori, junde. Eta surik barik. Hiru neskatillari lagundu hiru mutillek...

## Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

### 1. Gurbitza txondorra egiteko (ISP-010/024)

Txondorra toki leun batean egin behar da: egur zatiak pilatu, bitartean taket bat sartu eta piloa egiten da. Edozein egur klase erabil daiteke, baina gehienetan gurbitzarekin egiten zuten. Edozein sasoitan egin zitekeen txondorra, baina ondoen neguan egiten zuten.

### 2. Txabola ikaztokiaren ondoan (ISP-010/026)

Txabola bat egiten zuten ikaztokiaren ondoan eta bertan ematen zituzten gauak. Bi mila bat kilo ikatz ateratzeko ikaztokiek bost-sei egun behar izaten zuten. Bost mila kilo arte edo haritz erabiliz gero, mila bat kilo ikatz ateratzen zuten.

### 3. Txondorrean behar egiteko tresnak (ISP-010/027)

Txondorra ote belarrekin estaltzen zuten eta gero lur beltzarekin, "idurixe". Egurra egosi ostean, belakiarekin kentzen zuten gaineko lurra eta gero sarda-aitzurarekin edo eskuarearekin ateratzen zuten ikatza. Hoztu ostean, zakuetan sartzen zuten ikatza.

#### **4. Ikatza txondorretik ateratzea (ISP-010/028)**

Ikaztokia amatatu egiten denean, azala hoztu egin behar izaten zaio eta lehenengo ikatz kapa ateratzen da. Gero, atzera ere botatzen zaio gainetik lurra. Horrela ateratzen da ikatza, apurka-apurka.

#### **5. Ikatz onena artearena eta gurbitzarena (ISP-010/029)**

Ikatz garestiena artearekin edo gurbitzarekin egindakoa izaten zen. Gaztainarekin eta haltzarekin egindakoa merkeagoa izaten zen. Ikatza ona bada, bata bestearekin jotzen duenean zarata fina egin behar du.

#### **6. Ikaztokiak bedeinkatu (ISP-010/030)**

Ikaztokiak bedeinkatu egiten zituzten. Eurenean amamak egiten zuen: ur bedeinkatua bota eta ereinotza jarri.

#### **7. Erlea sakratua da (ISP-010/031)**

Behin, erle batek haginka egin zion eta erle guztiak erre behar zituela esan zion izekori. Honek, orduan, erleak sakratuak direla eta horrelakorik ez esateko erantzun zion. Asko handitu zitzaion aurpegia Juani.

#### **8. Erlea hartzeko eskubidea (ISP-010/033)**

Batzuetan, erlekumeak ihes egiten zuen eta auzokoaren etxean kateatuta geratuz gero harek erlea hartzeko eskubidea edukitzen zuen. Urte batean, gaixoa etorri eta ia erle guztiak desagertu zitzaizkien.

#### **9. Bekorotzaren kea erleengana hurbiltzeko (ISP-010/035)**

Eztia ateratzen joateko, kea egin behar da ganaduaren bekorotzagaz. Honela, erleak alde egiten du eta eztia atera daiteke. Etxean ezti asko hartzen zuten lehen, baina eurek saldu ere egiten zuten. Katarrorako, esaterako, eztia hartzen zuten.

#### **10. Argizaria (ISP-010/036)**

Erleak argizariarekin egiten dute abaoa eta bertan dator eztia. Ezti gutxi egiten dutenei erle alferrak esaten diete. Lehen, lanabesei distira emateko erabiltzen zuten argizaria eta baita kandela egiteko ere. Emakume batzuek kremak egiten zituzten argizariarekin.

#### **11. Erlea ondo jagon behar (ISP-010/037)**

Erlea ondo jagon behar izaten da: alboko sasiak moztu, amaraunak kendu eta erlauntzak garbi eta ondo estalita eduki. Erleak garbia, argia eta sikua behar du. Horregatik, normalean, barruan egoten da erlea neguan, atakara ia irten barik.

#### **12. "Ilbariko barixakuk beti ilbehera" (ISP-010/038)**

Iretargiak gauza askotarako dauka garrantzia, mentuetarako esaterako. Mentuak ilbeheran egin behar dira. "Ilbarriko barixakuk beti ilbehera" esaten zuten lehen.

#### **13. 24 sagar landare mentatu Bariku Santuan (ISP-010/039)**

Bariku Santu egunean 24 sagar landare batzuk mentatu zituen behin. Zelan egin zuen azaltzen du.



**CC-by-sa | Ahotsak.eus**

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - [ahotsak@ahotsak.com](mailto:ahotsak@ahotsak.com)